

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Izurtza



Aurkibidea

Udalerria: Izurtza

Sarrera



Bizkaiko udalerri txikia da, Durangaldean kokatua. Izurtza erdiguneaz gain, inguruko mendietan sakabanatutako baserriak daude, Ortuzar, Etxano eta Bitaña auzoak eratzen dituztenak. Izurtzak Durangorekin egiten du muga iparraldean, Mañariarekin hegoaldean, eta Abadiñorekin ekialdean. Bertako biztanleek Durangorako joera dute. Nekazaritza izan da beti Izurtzaren jardura ekonomiko nagusia eta Bizkaiko beste udalerri batzuek ez bezala, Izurtzak ez du XX. mendean biztanleria beherakada nabarmenik izan, Durango industria gunegarrantzitsuaren ondoan kokatuta egoteagatik. Zurgintzak ere badu bere garrantzia, inguruan dauden basoak direla eta. Industria haranaren beheko aldean ezarri diren enpresetan garatu da, gehienbat ondoko Durangoren eragina dela-eta. Industrialde horietan, herriko biztanle gehienek egiten dute lan. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko eta inguruko jatorrizko euskalkia. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 251
- **Euskaldunak:** %86,69

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **3**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **19**
- Transkribatutakoak: **1**

- Audioak: **0**
- Bideoak: **19**

Proiektuak

- Durango 1936
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Karmen Albistegi Agirre (1922)



1922an jaio zen Tabiran (Durango). Aita Benigno Albistegi eta ama Filomena Agirre zituen. Zortzi neba-arreba izan ziren etxean. Izurtzan bizi ziren Durangoko martxoaren 31ko bonbardaketa izan zenean. Aita Mendizabalenean ari zen lanean eta lantegi hura ere bonbardatu zutenez, bertan hil ote zen pentsatu zuten hasieran. Azkenean, aita onik, Izurtzatik Zornotzara joan zen familia. Han ere bonbardaketak, eta Bilbora. Frankistak Bilbon sartu zirenean Izurtzara itzuli zen familia. Jose Zuazua izurtzarrarekin ezkondu zen Karmen. Gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa '[Durango 1936](#)' Elkartekoek.

Salome Telleria Arteaga (1925-2019)



Izurtzako Etxaburutorren jaio zen 1925eko azken egunean; hala ere, dokumentu ofizialetan 1926koa dela agertzen da. Aita bertakoa zuen eta ama mañariarra. Hamar neba-arrebatatik bosgarrena da bera. Umetan Izurtzako eskolara joan zen, baina denbora gutxiz. Zortzi urterekin neskame lanetan hasi zen ezkondu arte: Mañarin izeko batenean umezain, Mendiolan ganadu-jagole, Bergarako txalet batean eta Bilboko Alameda Rekalden eta Agirre kalean. Gerrak Izurtzan harrapatu zuen. Durango bonbardatu zutenean, sendagai bila joan zen Durangora, haztegia (sarna) zuten-eta; baina ez zen heldu, milizianoek etxera bueltatzeko agindu zioten. Gurdia hartuta, ganaduarekin, Durangotik Larraskitura eta handik Sellara joan ziren. Sellan zeudela mairuak sartu zuren, eta bere neba bi atxilotu zituzten eta langile batailoietara eraman zituzten. Etxera bueltatzerakoan etxea hutsik aurkitu zuten, guztia ostu zieten. Bilbon zegoela, udak Portugaleten pasatzen zituen Bilboko familiarekin, eta hantxe ezagutu zuen bere senarra, "Naviera Bilbaina"ko Foruko arrantzalea, Juan Gandarias Agirrelespeiti. 25 urterekin Forura ezkondu zen eta bertan bizi izan da 58 urtez. Baserriko lanetan aritzeaz gain, eta generoa plazara eramateaz gain, etxetik kanpo ere hainbat lanetan aritu izan da: Bermeon antxoari burua kentzen, Murueta eta Foruko postari 22 urtez, [Zimela](#) jatetxean... Postari lanetan hasi zenean, motorra gidatzeko baimena atera eta mobiletea erosi zuen; beranduago, kotxerako gida-baimena atera eta "seiscientos"arekin ibili zen. Sasoi hartan, Forun andrazko gidari bi baino ez zeuden. 2010era arte ibili da bolante aurrean 26 urteko Opel Astra erretiratu ostean.

Jesus Uriarte Barrutia (1916-2017)



1916. urtean jaio zen Dimako Oba auzoko Artabilen. Gurasoak ere Obakoak zituen. Berak dioen bezala, zazpi urtera arte amaren gonapetik irten barik egon ostean, 13 urtegaz morroi joan zen San Migelera 16 urtera arte. Handik Mallabira joan zen soldadutzara joan behar izan zuen arte. Espainiako Gerra Zibilak harrapatu zuen bete-betean eta zapadoreetan hasi zen trintxerak egiten eta batetik bestera ibiltzea egokitu zitzaion: Solluben zauritu, Santanderrera nazionalekin, Santoña, Aranda de Duero, Zaragoza... 28 urte bete orduko Izurtzara joan zen eta bertan bizi izan zen ordudanik. Berbakera Izurtzakoa duenez, bertan kokatu dugu Diman kokatu beharrean.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Familia eta harremanak

1.1. "Txintxurreka" jolasean

- **Hizlaria(k)**: Telleria Arteaga, Salome
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: IZU-001/003
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:08:37
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Jolasorduan "txintxurreka" jolasten zuten. Soka-saltoan ere ibiltzen ziren, neska-mutilak batera. Jaunartzea ere elkarrekin egin zuten.

Transkripzioa

-Ta olgeu eta be eingo zenduen?
-Olgeu? Olgetako eta asti asko be ez guk. Klaro etxien ta badakizu, jun ein biher etxera.
-Ta errekreoetan-eta?
-Errekreoetan-ta bai, horrek ein kuadrotxuek eta txintxurrika esaten gutsen guk.
-Zelan?
-Txintxurrike, holan hanka bataz e zertute. Ta holakoxiek gure olgeta koittadue. Edo sokiaz sokan, izeten zien.
-Mutillekaz batera?
-Mutilekaz batera. Nik e komuniñue be ein naban, eztait nik zemat mutil izengo zien, zortzi edo hamar mutileaz bai, eta neska bi baiño ez.
-Orduen gizonak agintzen ebien edo zer?
-Bueno ez dakit nik, orduantxe giñen "una quintada de chicos eso".
-Klaro, zuk nebak be eukiko zenduzen nausixauak.
-Bai, nebak haundixek.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Neskame batetik bestera (IZU-001/004)

Zortzi urterekin neskame joan zen izeba baten etxera Mañariara ume zain. Handik Mendiolar joan zen aberezain. Jornalik ez zuen izaten, jaten ematen zioten. Astean behin etxera joaten ziren. Hamalau urte Bergaran bete zituen, txalet batean lanean ari zela. Handik Bilbora joan zen neskame, ezkondu artean.

2. Neskame lanak zein ziren (IZU-001/005)

Etxea garbitu, janaria prestatu... horrelako lanak egiten zituen neskame zela.

3. Otxandioko eta Durangoko bonbardaketen berri (IZU-001/006)

Gerra hasi zenean, Izurtzan zegoen. Otxandio bonbardatu zutela jakin zuten. Durango bonbardatu zutenean, sarna zeukaten eskuetan. Bera botika bila bidali zuen amak eta milizianoekin topo egin zuen. Izurtzako palaziora eraman zituzten zaurituak. Durangora joan zirenean, dena apurtuta ikusi zuten.

4. Izurtzatik ihesi (IZU-001/007)

Abereak gurdian hartuta, ihesi joan ziren. Bere neba nagusiak boluntario soldadu joan ziren eta frankistek hartu zituzten. Zazpi urte egin zituzten etxetik kanpora.

5. Itzuleran etxea hustuta (IZU-001/008)

Frankistek dena hartu zutenean, etxera itzuli ziren. Txakurra bidean galdu zuten eta bueltan topatu. Etxea hutsik topatu zuten, dena lapurtu zieten bizilagunek.

6. Casillara dantzara (IZU-001/010)

Bilbon dantzara joaten zen lagunekin, Casillara. Neskame non egon zen kontatzen du. Orduarekin beti arretaz ibili behar izaten zuen. Mutilekin dantzan egiten zuten.

7. Udan Portugaleten neskame (IZU-001/011)

Udan Portugaletera joaten ziren Bilboko etxekoekin. Foruarrak ezagutu zituen eta senarra marinela zenez, haiengana bisitan joaten zen eta hala ezagutu zuten elkar. Bilbon bi etxetan egon zen neskame. Hamabost ogerlekoko jorнала zeukan hilean.

8. Postari eta bestelako lanak (IZU-001/015)

Forura ezkondu zen. Etxetik kanpo hainbat lan egin zituen: Bermeon antxoei burua kentzen, postari, lantegian... Bizimodu gogorra izan du. Baserriko lanak ere egiten zituzten baina ez zuten nahikoa aurrezteko.

9. "Mobilette"arekin eta "seiscientos"arekin gutunak banatzen (IZU-001/018)

Postari eta aguazil lanik ez zuen inork nahi izaten eta berak hartu zuen postari lana. Mobilette motorrarekin eta autoarekin ibiltzen zen gutunak banatzen. Foruan bi emakume zeuden gidatzen zutenak eta denek begiratzen zieten. Senarrak baino lehen atera zuen gida-baimena.

10. Arropak zela zuritu (IZU-001/020)

Foruan aska batera joaten zen arropak garbitzera. Izurtzan errekan harri bat zegoen eta han garbitzen zituzten. Amak arropak zuri-zuri lagatzen zituen. Zela egiten zuen kontatzen du, sutako-hautsa eta ereinotzarekin. Neba nagusiak errekarra joaten ziren garbitzera, xaboia hartuta.

11. 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketa (IZU-003/001)

12. Izurtzatik Zornotzara eta handik Bilbora (IZU-003/002)

13. Amama Ampuerotarrenean aña (IZU-003/003)

14. Artxandatik obusak eta faxisten sarrera Bilbon (IZU-003/004)

15. Etxera itzuli eta etxea okupatuta (IZU-003/005)

16. Bilbon zeudela aita eta ama atxilotu (IZU-003/006)

17. Gerra amaitu zenean aita kartzelara (IZU-003/007)

18. Jose Zuazua senarra Sevillan langileen batailoian zigortuta (IZU-003/008)

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com